

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresa sortzeko arazo bat aukeratzerakoan, egia esan, zailtasunak izan genituen, gugandik urrunegi dauden eta konplexuegiak diren arazoetan pentsatzen baikenuen eta, hortaz, guretzat hauei konponbide bat ematea zailagia zen. Horregatik, denbora luzez hausnartu ondoren, guk geuk batxilergoko ikasleak izanda egunero sufritzen dugun zailtasun bat aukeratu genuen: gure espezialitatea edo karrera erabakitzea. Batxilergoko bigarren urtean gaudelarik, ia egunero errepikatzen diguten galdera bat da: “Eta zuk, zer egingo duzu hurrengo urtean? Zer ikasi nahi duzu?” eta egia esan, erantzunik ez izatea estresagarria da benetan.

Gure gaur egungo gizartean, gazteek gure bizitzarekin egin nahi duguna goizegi erabaki behar dugula deritzogu, 18 urte oraindik bete ez ditugularik eta hortaz esperimintatzeko eta benetan gustuko duguna aurkitzeko denborarik izan gabe. Hori dela eta, gehienontzat oso erabaki nekeza da, itsu-itsuan erabakitzen dugulako gure etorkizunean eragin handia izango duen zerbait. Horrek gugan **antsietatea eta presioa** sortu dezake, maiz azken momentuan eta ziurtasunik gabe hautatuz. Gainera, ikasketa-zentro bakoitzean hainbeste ikasle izanda, oso zaila da orientazio espezializatua jasotzea eta benetako laguntza izatea, ikastetxe edo institutu gehienetan orientatzaile bat baino ez baitago.



Hezkuntza-sistemak orientazio akademikoa eskaintzen du, baina lotura txikia du ikasgeletatik kanpo bizi den egoerarekin; hau da, gazteek ez dakite benetan zer egiten den ingeniari, erizain edo diseinatzaile grafiko baten lanean; ez dute zuzeneko loturarik esperientzia horiek bizitzen ari direnekin, hau da, lantzen ari diren gaian adituak diren ahotsengana hurbiltzeko modurik. Haatik, **gehienek informazio errealik gabe** egiten dute erabakia, ingurukoek lanbide edo karreraren inguruan dituzten aholku, aurreiritzi edo esteriotipoei kasu eginez.

Hori gutxi balitz, gure inguruko jendeak, nahita edo nahi gabe, espektatiba handiak jartzen ditu gugan, erabakia are konplexuago bihurtuz eta estres eta antsietate gehiago sortuz. Izan ere, guraso guztiek nahi dute seme-alabek arrakasta izatea, etorkizun bikaina izatea eta karrera eta unibertsitate onenetan sartzea, eta hori batzuetan ez da guk nahi duguna. Ulgarria da guretzat onena dena nahi izatea, baina haien itxaropenek eta aurreiritziek askotan eragiten dute gaizki aukeratzea edo benetan gustatzen zaiguna ez egitea haiei atsegin emateagatik, gutaz harro egoteagatik, eta horrek eragin dezake gero aukeratzen dugun karrera ez gustatzea edo, are gehiago, etorkizunean egingo dugun lanak gu zoriontsu ez egitea, laneko motibazioa galtzea eraginez. **Gauzak horrela, BBVAren datuen arabera, Espainian gradua hasten duten ikasleen % 33k ez du amaitzen.** Eta % 33 horretatik % 21ek erabat uzten dute unibertsitatea, eta % 12k karreraz aldatzen dute. Arrazoi nagusietako bat da informazio nahikorik izan gabe aukeratu izana.

[Arazo honi lotutako datu gehiago ikusteko. egizu klik hemen](#)

Horregatik guztiagatik, hain garrantzitsua den erabaki bat hartzeko hain laguntza eta iturri gutxi izatea onartezina dela deritzogu, eta ondorioz, hona hemen gure konponbidea: **ELKARTUZ** taldea.



Gure proposamena orientaziora bideratutako zerbitzu bat da. Honetan, lanpostu desberdinen errealitateak erakustea, gazteei dituzten aukera guztiak ezagutaraztea eta erabakitzeko orduan laguntzea eta haiekin egotea dira gure helburu nagusiak. Horretarako, besteak beste, benetako profesionalen eta unibertsitate edo graduatuko ikasleak eta zalantzati dauden gazteen arteko **harremanak errazten** ditugu, erabaki aurretik gazteek nahi duten bezain beste galdera egin ahal izateko, haien ezinegonak transmititu eta argitzeko eta errealitatean lanbideak nolakoak diren ezagutzeko, askotan ditugun aurreiritziak eta usteak alde batera utzita. Gainera, ahal izatekotan, **aktibitate praktikoak eta murgilketa** txikiak antolatuko genituzke hautatu aurretik lehen pertsonan ezagutzeko esperientzia eta benetan jakiteko hori egin nahi duten edo, kontrari, okertuta zeudela jakiteko eta ikasten hasi aurretik haien erabakia birbideratzeko **etsipena eta motibazioa galtzea saihestearren** eta denborarik ez galtzeko.

Horrez gain, **app** bat egiteko asmoa dugu zerbitzu orokorrak eskaintzeko eta erabiltzaileek test batzuk bete ahal izateko gero gugandik jasotako laguntza eta zerbitzuak ahalik eta pertsonalizatuak izatearren. Hau da, gure aplikazioa gure bezeroen profilak zehazteko prozesuak errazteko bitarteko bat izango litzateke, eta, ondoren, arreta askoz indibidualizatuagoa jasoko lukete. Sistema hau **astean 7 egun dago eskuragarri 24 orduz**, eta datuen bilketa arindu egiten du, eraginkorrak eta eramangarriak eginez, bai guretzat, bai erabiltzailearentzat. Gainera, app honetan, **edozein profiletarako aholku eta baliabide erabilgarriak** ere gehituko ditugu, gure bezero guztientzat eskuragarri dauden bideo, artikulua edo aholku praktiko orokortuekin, hala nola: PAUari aurre egiteko tip-ak, unibertsitatera aldaketa atseginagoa eta leunagoa izateko aholkuak edo ikasle mota bakoitzarentzako ikasketa metodoak.



Hau abantaila handia da, kontuan harturik unibertsitateek eta ikastetxeetako orientatzaileek emandako hitzaldiak data zehatzetan ematen direla eta ez direla pertsonalizatuak, talde handientzako ematen direlako galderarik egiteko eta aurrez-aurreko elkarrizketak izateko aukerak murriztuz. Aldiz, gure zerbitzuen bidez **ordutegiak askoz malguagoak** dira eta arreta askoz ere hurbilagoa, hitzaldiak oso talde mugatuentzako antolatuz. Horrek ez du esan nahi guk talde-orientaziorik egiten ez dugunik, guk ere horrelakoak eskaintzen ditugu, uste dugulako onura ugari dituztela, hala nola zalantza orokorrak argitu ahal izatea, gazteek haien egoera berdinean daudenen kezkak eta iritziak ezagutu ahal izatea edo abonatuak ziurgabetasun-egoera honetan bakarrik ez daudela ikustea.



Beste batzuek ez bezala, **ez dugu errealitatea apaintzen**. Kontuan izan behar da: unibertsitateak eta prestakuntza-zentro batzuk ere enpresak dira, eta, haien helburu nagusia beren ikasgelak betetzeko ikasleak erakartzea izango da beti. Horregatik, funtsezkoa da ikasleek erabakiak modu arrazoituan hartzea, beren etorkizunean eta komeni zaienean pentsatuz, ez bakarrik unibertsitateek saltzen duten moduan. Horretarako gaude gu, ez baitugu inolako harreman komertzialik inongo unibertsitate edo ikastetxerekin.

Gainera, bereizten gaituen beste ezaugarri bat, gaur egun gurea bezain negozio-eredu hain oso eta pertsonalizaturik ez egoteaz gain, orientatzaile pribatuak ez bezala, **guztiontzat eskuragarriak** garela da. Alde batetik, esan bezala, ikastetxe eta institutueta, orientatzaileak ez dira nahikoak; izan ere, ikasle asko daude, eta normalean orientatzaile bat edo bi baino ez eta hortaz hauek ez dira aski, eta ezin dute arreta pertsonalizatua eskaini guztiontzat. Horregatik, ikasle askok orientatzaile pribatuetara jotzen dute, eta, kasu gehienetan, gurea bezain zerbitzu osoa eta murgiltzailea ez eskaintzeaz gain, ez daude edonoren esku, prezio altua izaten baitute. Guk, aldiz, doako zerbitzuak eskaintzen ditugu (aplikazioaren testak eta baliabide orokortuak, adibidez), eta batzuk ordainketakoak izan arren, prezioaren kalitatearen erlazioa askoz hobe da, zerbitzu gehiago eskaintzen ditugulako, prezio oso arrazoizkoan eta askorentzat eskuragarri.

Gure zerbitzuen artean, halaber, txikienentzarako orientazioa ere eskaintzen dugu, informazioa beranduegi hasten dela uste baitugu. Gure ustez, ezin da egokia haurrak beren buruari galdetzen hastea zer egin nahi duten batxilergora iritsita eta aurretik haien dituzten aukerak ere ez ezagutzea; izan ere, kasu askotan oso berandu izan daiteke pentsatzen hasteko, eta presaka eta oker egin daitezke hautuak. Horregatik, **DBHko eta lehen hezkuntzako ikasleentzako hitzaldi txikiak** eskaintzen ditugu ikastetxeetan, gure edukia egokituz eta askoz ere modu entretenigarriago eta leunagoan baina hala ere didaktikoan eginez. Gure enpresari esker, gazteek txiki-txikitatik hobeto ulertu ahal izango dute zergatik ikasten duten eta etorkizunean zer bide jarraitu nahi duten, hobeak izatera motibatuz, egunero ahalegintzera bultzatuz eta ziurgabetasuna murriztuz,

Laburbilduz, gaur egungo orientazio-zerbitzua ez da nahikoa, eta badakigu gazte asko galduta sentitzen direla beren bizitzako erabaki garrantzitsuenetako bat itsu-itsuan hartzen dutelako, eta hori onartezina iruditzen zaigu. Gure zerbitzuen bidez, guk geuk ordainduko genukeena jasotzeagatik, arazo hori konpontzen laguntzen dugu, motibaziorik eza eta eskola uztea murriztuz. Laburbilduz, gazteei beren bokazioa aurkitzen eta beren ametsen etorkizuna eskuratzen laguntzen diegu; harremanak erraztuz eta sektore desberdinetako adituak eta ikasleak **elkartuz** eta mundu hobe bat eraikiz.